

Ikastaro telematikoa entzun zenuenean zer pentsatu zenuen eta zer eduki duzu, zertan izan da espero ez zenuen, zertan harritu zaitu?

Ikaslea 1:

-“Egia esan, izan denaren antzeko zer bait espero nuen. Nire lanagatik ezagutzen nituen horrelako konexioak, nazioarteko konexioak egiten ditugulako, eta banekien eraginkorrak direla, oso.”

Ikaslea 2:

-“Abuztuan lagun batekin egin nuen topo eta berak azaldu zidan zegoeneko egin zuela eta aholkatu zidan . Nik hemen euskaltegian baino asko gehiago ikasi dut , bai . “

Ikaslea 3

- “Egia esanda telelanaren alde nago, batez ere, egungo egoera ikusita. Hori dela eta, ikastaroa telematikoa zela entzun nuenean, ondo iruditu zitzaidan. Dena den, egia da aurrez-aurreko elkarreragina faltan bota dudala momentu batzuetan, baina, orokorrean oso ondo funtzionatu duela uste dut.

Etxean lan egiteak erosotasunarekin bat dator. Klasean eman ditugun orduak ondo egituratuta eta sailkatuta zeuden; beraz, denbora geneukan ariketak egiteko lasaitasun osoz. Gainera, idazlanak egiteko, adibidez, ordenagailuarekin egitea askoz errazagoa izaten da.

Gehien harritu nauena izan da ikustea posible dela pantaila baten bitartez gauzak irakastea eta ikastea.”

Ikaslea 4:

- “Izan denaren nahiko antzekoa izango zela pentsatzen nuen. Gramatika klaseak eta ahozko zatiari eskainitako beste tarte bat. Hala ere, nire itxaropenak gainditu ditu. Oso tresna ona iruditzen zait klaseak lanarekin konbinatu behar dituztenentzat edo etxetik egin nahi dutenentzat. Eta askoz gehiago orain, daukagun egoera ikusita.”

Ikaslea 5:

-“Ez dut jakin zein zen ikastaro telematikoa, onlinekoa bezalako zela pentsatzen nuen, baina beste izen batekin; hala ere, oso desberdina da. Nire uste apalean, ikasgela arruntarekin ez dauka alde handirik.”

Ikaslea 6:

-“Konfinamenduan zehar ordenagailuaren bidez euskara ikasten jarraitu nuen, orduan niretzat ez zen eskarmentu berria. Askok ikasi nuen egoera horretan, horregatik, udan zehar jarraitu nuen horrela ikasten. Horrek lagundu dit nire bizitza kontziliatzen, bestela, ezinezkoa izango zen udan zehar ikastea. “